

Ekipoa	Ibilgailu elektrikoaren kargalekuak
Kodea	D-4029
Ingurumen-hobekuntza	<p>Kargatzeko zutoinak lagungarriak dira ibilgailu elektrikoaren erabilera ingurumenari eragiten dizkion onurak lortzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Motorrak igortzen duen zarata murriztea. - Energia primarioa aurrezten da. - Emisio kutsatzaileak murriztea. - Mantentze-lan gutxiago behar izatea.
Honetan datza:	<p>Ibilgailu elektriko puruen eta hibrido entxufagarrien bateriak kargatzeko gailuak dira eta saretik datorren energia ematen dute. Ibilgailuaren kontzeptua zentzu zabalean ulertzen da. Horrenbestez, turismoak ez ezik, beste ibilgailu batzuk ere kontuan hartzen dira; adibidez, motozikletak, scooterrak eta golf-zelaietan eta beste toki batzuetan erabiltzen dituzten «orgak».</p> <p>Kargalekuaren ezaugarri teknikoak eta instalazioaren osagaiak honako faktore hauen mende daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Karga mota (geldoa, erdi-azkarra edo azkarra): <ul style="list-style-type: none"> - Karga geldoa: estandarizatuena da, eta ibilgailu elektrikoaren fabrikatzaile guztiek onartu dute. Korrante alferno monofasikoaren bidez egiten da, 220 voltoko (V) tentsioarekin eta 15 ampere (A) arteko intentsitatearekin. Bateria guztiz kargatzeko 6 ordu inguru behar dira. Garaje pribatuetarako egokia da, etxeko tentsio eta korrante berbera behar baitu. - Karga erdi azkarra: ibilgailu batzuek soilik onartzen dute, baina, ziur asko, nahiko karga arrunta izango da laster. Korrante alferno trifasikoaren bidez egiten da, 400 V-ko tentsioarekin eta 63 A arteko intentsitatearekin. Kasu horretan, 50 minutu inguru behar dira kargatzeko. - Karga azkarra: epe luzera planteatua, zailtasun tekniko handiak baititu. Gainera, ez dago estandarrik, saltzen diren ibilgailu guztientzat baliozkoa denik; hala ere, fabrikatzaile batzuek onartu dute jada. Ibilgailua korrante zuzenekoaz elikatzen da 400 V-ko tentsioarekin eta 600 A arteko intentsitatearekin. Kasu horretan, 10 minutu inguru soilik behar dira kargatzeko. o Zutoinaren erabilera: <ul style="list-style-type: none"> - Autonomia, banakakoa eta sarbide irekikoa. Adibidez, bizitegietan erabiltzeko, bai eta merkataritza-aplikazioetarako ere: enpresak, hotelak eta saltoki gunetako aparkalekuak.



	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia, banakakoa eta sarbide mugatukoa. Adibidez, merkataritza-aplikazioetarako: enpresak, hotelak eta saltoki gunetako aparkalekuak. - Puntu aniztuna, kolektiboa eta sarbide irekikoa: Adibidez, merkataritza-aplikazioetarako: enpresetako ibilgailu-flotak, hotelak eta saltoki gunetako aparkalekuak. - Puntu aniztuna, kolektiboa eta sarbide mugatukoa: Adibidez, aplikazio hauetarako: errepide ondoan kargatzea, garaje komertzialak, eta merkataritza-aplikazioak (enpresetako ibilgailu-flotak, hotelak eta saltoki gunetako aparkalekuak). - Puntu aniztuna, kolektiboa, sarbide mugatukoa edo erabiltzeko ordaindu beharrekoa: Adibidez, aplikazio hauetarako: errepide ondoan kargatzea. - Autonomia, banakakoa eta sarbide mugatukoa edo erabiltzeko ordaindu beharrekoa: Adibidez, azkar kargatzeko hornitegiarako. <p>Kargatzeko puntu horien ezaugarri orokorrenak eta arruntenak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bandaloen aurkako gorputz metalikoa. - Pintura ez-eroalez estalia. - Bandaloen aurkako teknikak (graffitiak, manipulazio bidegabeak edo bestelako erasoak eragozteko) - Saldoa monitorizatzeko displaya. - Kargak buru argiz eta efizientziaz kudeatzeko tresnak. - Diferentziala, birkonexio automatiko integratu eta guzti. - Energia lapurtzeko saialdiei aurre egiteko babes-sistema. - Hurbiltasuneko txartelen bidez sarbidea izatea eta aurrez ordaintzea (modeloaren arabera). - Eta abar.
<p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p>	<p>Golf-zelaiak aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.</p> <p>Gainerakoan, teknika hori aplika daiteke ibilgailu elektrikoak dituzten edo izan ditzaketen eta kargaleku bat jar dezaketen sektore guztietan. Adibidez, hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Taxiak. - Enpresako ibilgailuak.



- | | |
|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| | <ul style="list-style-type: none">- Alokatzeko ibilgailuen flotak.- Erakunde publikoetako flotak (udalak, aldundiak...).- Aireportuak.- Merkataritza-guneak.- Hotelak.- Eta abar. |
|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|